

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



**GIPUZKOAN
GIZARTERATZEKO
GIDA.
2008 - 2012**

AURKIBIDEA

Sarrera, metodologia eta printzipio nagusiak	5. or.
1. Sarrera eta metodologia	5. or.
2. Printzipio nagusiak	6. or.

Gipuzkoan Gizarteratzeko Zerbitzuak garatzeko jardun-ildoak:

1. ARDATZA: OINARRIZKO GIZARTE ESKUBIDEAK ESKURATU AHAL IZATEA	
1. Arloa: Diru-sarrerak bermatzeko laguntza ekonomikoak	
Jardun-ildoak: 1 – 2 – 3 – 4 – 5	12.-19. or.
2. Arloa: Lan-munduan txertatzea	
Jardun-ildoak: 6 – 7 – 8 – 9 – 10 – 11	20.-29. or.
2. ARDATZA: ESPARRU ERAGINKOR NAGUSIA	
Jardun-ildoak: 12 – 13 – 14 – 15 – 16 – 17	30.-39. or.
3. ARDATZA: BALIABIDE ETA ZERBITZU BEREZITUAK	
Jardun-ildoak: 18 – 19 – 20 – 21 – 22 – 23 – 24	40.-48. or.

Sarrera, metodologia eta printzipio nagusiak

1. Sarrera eta metodologia

- 1.1. Dokumentu honen helburua gizarteratzearen arloan jarduteko hainbat oinarritzko ildo proposatzea da. Ildo horien bitartez, eta dauden beharren diagnosian oinarrituta, Gipuzkoako Lurralde Historikoan dugun gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen sarea hobetzea lortu nahi dugu, eta bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiaren eskumenekoak diren zerbitzuak.

Aurrerago zehaztuko dugun bezala, plan hau 2008-2012 aldiko Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen II. Maparen tresna osagarri bezala sortu da, gizarteratzeko zerbitzu eta programei dagokienez. Mapan, Gizarte Zerbitzuen foru-sarea epe ertainean osatu behar duten programa eta zerbitzuak zehaztuta zeuden funtsean, eta baita sarearen tamaina eta ezaugarri nagusiak ere; plan honetan, ordea, estrategiari edo antolaketari lotuta dauden ekintzak sartu ditugu batik bat, eta ekintza horiekin batera hobekuntza kualitatibo nabarmenak, baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonei zuzendutako programen, laguntzen eta zerbitzuen funtzionamendua hobea izan dadin. Nolanahi ere, egitura- edo tresna-izaerako neurri horiez batera, programa eta laguntza jakinetan gauzatzeko neurriak ere sartu ditugu, Maparen barruan dauden zerbitzuak sendotu edo zehazten dituztenak.

Hori dela eta, proposatutako neurriak hiru ataletan banatuta aurkeztu nahi ditugu:

- Oinarritzko Gizarte Eskubideak eskuratu ahal izatea. Atal honetan, arreta berezia eman diegu diru-sarrerak bermatzeko eta lan-munduan txertatzeko programei.
- Esparru Eraginkor Nagusia. Egiturari eta antolaketari lotutako alderdietan gauzatzeko neurriak jaso ditugu atal honetan; neurri horiek berekin ekarriko dituzte, orokorrean, emandako zerbitzuen kalitate hobea eta zerbitzu horiek erabiltzaileen beharretara hobeto egokitzea.
- Arreta Bereziko Baliabide eta Zerbitzuak. Atal honetan, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeari jarraituz, arreta berezia eman nahi diogu foru-erakundeek gizarte-bazterketaren esparruan garatu beharko dituzten baliabide eta zerbitzuen hobekuntzari.

1.2. Gida hau eta Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen II. Mapa osagarriak direnez, dokumentu hau idazteko kontuan hartu dugu II. Mapa egitean aztertu zen egoeraren diagnostikoa. Horrez gain, eta plan honen bidez berariaz ekin nahi diegun alderdiei dagokienez, aintzakotzat hartu dira Departamentuko teknikariek, alor honetan lan egiten duten erakundeek eta Mapa egiteko kanpoko aholkularitza-lanak burutu zituen talde teknikoak egindako balioespenak.

1.3. 2008-2012 aldirako Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen II. Foru Mapa egiteko definitutako irizpidearen arabera, eta ekintza-ildo errealista eta eraginkorrak zehazteko asmoz, erabaki dugu baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak zentzuz erabilia lehentasunezkoztat edo/eta egingarritzat jo diren neurriak soilik kontuan hartzea. Hortaz, diagnostikoa hautemandako gabezia batzuk ez dira proposatutako jarduketan barruan sartu, bai horiei irtenbidea emateari beste administrazio batzuen egitekoa dela iritzi zaiolako, bai lehentasunezkoztat jo ez direlako.

1.4. Jardun-ildo bakoitza hiru zatitan banatu dugu:

- a) jarduketaren beharra edo arrazoitzea, eta jarduketari eusten dioten oinarri teorikoak
- b) jarduketaren edukia
- c) adierazleak

Adierazleak, hain zuzen ere, erreferentzia-puntu izango dira proposatutako neurriak noraino betetzen diren zehaztu ahal izateko.

1.5. Planaren indarraldia Gizarte Zerbitzuen Maparentzat zehaztu den aldi bera izango da –hau da, 2012. urtera arte–, eta indarraldia amaitzerakoan –hurrengo legegintzaldiaren hasierarekin bat egiten duen garaia– bi tresnak batera ebaluatu ahal izango dira.

2. Printzipio nagusiak

Dokumentu hau egiteko, aintzakotzat hartu ditugu honako printzipio eta irizpide nagusi hauek:

a) Gaiak mugatzea

Gizarte-bazterketa pairatzeko kausa anitz daudela kontuan izanda, badirudi argi dagoela gizarteratzean eragina duten alderdi guztiei heldu behar zaiela gizarteratzea sustatzeko neurriak planifikatzeko orduan, eta gizarteratzeko planek izaera orokorra izan behar dutela, arazoari bere osotasunean heltzea errazteko eta gaien, lurralde jakin batean, esku hartzen duten administrazio guztiei jarraitu beharreko gidalerro partekatuak emateko.

Hainbat erakundek, eta zehazki Gipuzkoako Foru Aldundiak –eta Aldundiaren barruan Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusia–, dituzten eskumen-mailak direla-eta, beharrezkoa egiten zaigu, hala ere, plangintza egiteko orduan ikuspegi murriztaileagoa izatea, hasiera batean gizarte-bazterketa pairatzeko dauden kausen aniztasunak ustez beharko lukeen ikuspegi zabalagoarekin alderatuta; era berean, ikuspegi horri jarraituz lortu behar dugu, funtsean, erakunde bakoitzak bere eskumenen esparruan dituen oinarritzko jardun-ildoak mugatzea.

Hori dela eta, dokumentu honetan kontuan hartu dira, berariaz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiaren eskumenen barruan zuzen-zuzenean dauden alorrak eta taldeak.

Ikuspegi horri jarraituz, kanpoan utzi behar ditugu, jakina, gizarte-bazterketaren fenomenoak berriz bideratzeko orduan funtsezkoak diren zerbitzuak eta tresnak, hala nola, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak eta Lehen Mailako Arretako gainerako gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, etxebizitza, osasungintza edo Gizarte Segurantzaren sistema, Gizarte Politikako Departamentuaren Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiak ez duelako gai horietan jarduteko ahalmenik. Hala eta guztiz ere, partzialtasun horren ordainetan, murriztagoa den ikuspegi horrek ahalbidetzen du eraginkortasun eta errealismo handiagoz heltzea Zuzendaritzaren eskumenekoak diren edo esku-hartzeen barruan egon daitezkeen gaiak.

b) Neurrien izaera estrategikoa

Dokumentu honetan proposatzen ditugun neurrien izaerari dagokionez, jarduteko hainbat ildo estrategiko definitu nahi izan ditugu, zerbitzuen sareak gaur egun duen konfigurazioaren barruan zehaztu diren gabezia esanguratsuenetan eragina izateko. Laburtasunaren eta gomendioen eragingarritasunaren mesedetan, beraz, borondatez mugatu dugu neurrien kopurua, eta erabaki dugu bakar bakarrik hautatzea errealistak ez ezik, bideragarri, lehentasunezko eta behar bezain garrantzitsuak ere iruditu zaizkigunak.

Horiek horrela, saihestu egin dugu plana plangintza egiteko ohiko jarduketatzat hartzea; aitzitik, datozen urteetarako lehentasunezko ekintza-ildoen multzotzat jo dugu, proposamen zehatzak egiteari eta neurri horien gauzatze-maila ebaluatzea ahalbidetzen duten adierazleak ezartzeari uko egin gabe.

c) Zeharkakotasuna

Egoera aztertzean, aintzakotzat hartu ditugu gizarteratzeko dauden tresnak nahiz bazterketa-faktoreak eskuarki bildu ohi dituzten taldeak, talde horiek baitira, hain zuzen ere, Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiaren jarduketan helburu. Hala eta guztiz ere, gomendioak gauzatze-ko orduan, lehentasuna eman diegu zehar-izaera nabarmenagoa duten politika eta neurriei, uste izan baitugu neurri horiek antolatzean onura bera ekarriko zaiela gizarte-bazterketa pairatzen duten edo

pairatzeko arriskua duten pertsonen, beren adina, sexua, jatorria edo norberaren egoera edozein izanda ere. Ikuspegi horretatik, talde espezifikoaren egoerari heldu diogu, bakar bakarrik, ezinbestekoa dela iritzi diogunean, beren beharren larritasun-mailaren edo berariazkotasunaren arabera.

d) Araudi-esparru berrira egokitzea

Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusian, bere garaian, plan honen behin betiko idazketa atzeratu egin zen, 2008ko abenduaz geroztik gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen eta diru-sarrerak bermatzeko programen alorrean erakunde-jarduera arautzen duten bi arauak –abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, eta abenduaren 23ko 18/2008 Legea, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak bermatzekoa– behin betiko onartu gabe zeudelako artean.

Bi arau horiek onartuta daudela, eta bi legeen arau-garapena inolaz ere osatuta ez badago ere, Planaren barruan kontuan hartu dira lege horietan eskumenak banatzeari buruz eta laguntza eta modalitate berriei buruz jasota dauden xedapenak.

e) Ardura publikoa eta gizarte-ongizatearen eredu gipuzkoarra

Beste alde batetik, dokumentuan proposatzen diren neurriak oinarrituta daude bi printzipio osagarriren onespenean:

- gizarteratzeko zerbitzuen ardura publikoa izatea;
- *Gizarte-ongizatearen eredu gipuzkoarra* izendatu denaren baliozkotasuna; ereduak bere baitan du, funtsean, lankidetzako harreman sendoak izatea administrazio publikoaren eta irabazteko asmorik gabeko ekimen pribatuaren artean.

Gizarte-zerbitzuen ardura publikoa izatea defendatzean, onartzen ari gara pertsona guztiek bizibaldintza duinak izateko eta gizartean erabatekotasunez esku hartzeko duten eskubidea bermatzea botere publikoaren eskumenekoa dela batik bat, eta botere publikoaren esku dagoela, halaber, dauden baliabideen kalitatea, askitasuna eta egokitzapena bermatzea, beren gain duten zerbitzuak prestatzeko, ikuskatzeko, eskaintzeko eta ebaluatzeko eskumena gauzatu.

Beste alde batetik, gizarte-ongizatearen eredu gipuzkoarra finkatzearen aldeko apustuak berekin ekarriko du irabazteko asmorik gabeko erakundeek ardura publikokoak diren zenbait gizarte-zerbitzu eskaintzeko –zerbitzu hitzartuen bidez– legezkoasuna eta gaitasuna dituztela onartzea eta, horren ondorioz, erakunde horiek zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren baliabideez hornitzeko beharra dagoela. Ilde berean, eredu hori defendatzeak berekin du, orobat, bi alderdientzat onuragarriak diren lankidetzan aritzeko eta laguntzeko harremanen esparru bat garatzea, administrazio publikoak gizarte-politikak definitzeko orduan lidergoa izan behar duela ontzat emanda.

f) Beste administrazio batzuekiko osagarritasuna eta lurralde-lidergoa

Landu nahi ditugun gaien mugaketa azaltzean adierazi dugun bezala, dokumentu honetan jaso ditugun gomendioak kontuan hartzekoak dira, batez ere, Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiaren eskumenen alorrean. Enpleguarekin eta gizarteratzearekin lotura duten hainbat gai eta eskumen mugatzea zaila suertatu zaigu; alabaina, ez diogu uko egin beste administrazio batzuen arau- edo kudeaketa-eskumenekoak –osorik edo zati batean– diren gaiei buruzko proposamenak egiteari.

Horrelakoetan, proposatu ditugun neurriak jadanik dauden neurrien osagarriak dira beti, eta hori da hain zuzen ere lortu nahi duguna, neurri osagarriak izatea, lehengo neurriak ordeztu edo bikoiztu gabe. Horretarako, garrantzia eman diegu lehengo neurrietan baztertuta edo eskas geratu diren alderdiei. Hautu honen bidez, administrazioen arteko lankidetzeta eta osagarritasuna beharrezkoa dela azpimarratu nahi izan dugu, administrazio bakoitzak dituen ardurak bere gain hartu behar dituela aitortzeaz gain.

Beste alde batetik, dokumentuaren oinarria da Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiak, gizarte-zerbitzuak garatzeko orduan, lidergoa bere gain hartzea, ez Eusko Jaurlaritzak, ez udalek, ezta hirugarren sektoreko erakundeek ere beren gain hartu ezin duten lidergoa, alegia. Ikuspegi hori aintzakotzat hartuta, gure abiagunean dagoen ideia da Aldundia dela –Gipuzkoako lurralde honetan herritarrengandik hurbil dagoelako eta ekiteko gaitasuna duelako– hainbat zerbitzu ematea eta lurraldearentzat egokitzat jotzen diren ekintza-ildo jakin batzuk gauzatzea sustatzeko ahalmen handiena duen erakundea. Hori guztia, jakina, gainontzeko erakundeen eskuduntzei kalterik egin gabe, eta erakunde komunek ezarritako gizarte-politiken esparru orokorraren barruan.

g) Lurralde-kohesioa eta kalitatearen bermea

Idatzi dugun dokumentuaren abiapuntua da, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak gipuzkoar guztiei, herritarrek bizi diren udalerrira zein den ere, oinarritzko gizarte-eskubideak baldintza-berdintasunean eskuratzeko bermea emateko duen betebeharra, legeriak erakundeari, lurraldeko gobernu-organoa den aldetik, aitortzen dizkion eskuduntzen barruan. Eta, horretarako, udalerrietan gizarte-bazterketaren aurkako baliabideak eta ahaleginak parekatzea sustatu behar du.

Era berean, Gizarte Zerbitzuen II. Mapa egituratzeko egindako diagnosian adierazten den bezala, gizarte-bazterketari betidanik eta hainbat arrazoiengatik arreta eskasagoa eman zaio kalitatea bermatzeari eta baliabideak egokitzeari dagokienez, Gizarte Zerbitzuak osatzen duten gainontzeko alorrekin alderatuta. Administrazio publikoek ardua gutxi hartu dute beren gain gizarte-bazterketaren alorrean –gizarte-arretako beste alor batzuekin alderatuta, behintzat, zahartzaroaren edo ezgaitasunen alorrearekin, adibidez–, eta horren ondorioa izan da Gipuzkoan baliabideen garapena txikiagoa izatea ezaugarrien nahiz kopuruaren aldetik, eta orain dela gutxi arte gabeziak izatea alorrean plangintza egiteko, ebaluatzeko eta ikuskatzeko orduan, edo prestakuntzan.

Dokumentu honetan jaso ditugun proposamenak egiteko oinarria, beraz, gizarte-ekintzaren esparru guztien artean ikusi ditugun desberdintasunak orekatzeko beharra da, eta, ildo horretan, gizarteratzeko alorrean ere kalitatezko arreta eskaintzeko beharrezkoak diren giza baliabideak nahiz baliabide materialak eta antolakuntzakoak bermatzea.

h) Berrikuntza eta jardunbide egokien transferentzia

Dokumentuaren izaera estrategikoa kontuan hartuta, proposatutako neurriak hautatzeko orduan lehentasuna eman diegu egungo egoerarekin alderatuta nolabaiteko berrikuntza zekartenei eta, batez ere, jardunbide egokitzat jo daitezkeen neurriei.

**GIPUZKOAN GIZARTERATZEKO ZERBITZUAK
GARATZEKO JARDUN-ILDOAK**

1. ARDATZA. OINARRIZKO GIZARTE ESKUBIDEAK ESKURATU AHAL IZATEA
1. ARLOA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK

1. JARDUN-ILDOA: 2008KO. ABENDUAREN 23KO 18/2008 LEGEAK, GIZARTERATZEKOAK ETA DIRU-SARRERAK BERMATZEKOAK, EZARRITAKO ESPARRU OROKORRERA EGOKITZEA FUNTZIOEN ETA ANTOLAKUNTZAREN IKUSPEGITIK

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ 2008ko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Gizarteratzeakoak eta diru-sarrerak bermatzeakoak, zenbait funtsezko aldaketa ekarri ditu diru-sarrerak bermatzeko laguntza ekonomikoen lege-erreferentziatzko esparrura. ■ Lege berriak eskubide bikoitzeko printzipioa finkatzen du, alegia: eguneroko bizitzako oinarrizko beharrei aurre egiteko baliabide ekonomikoak izatea eta gizarteratzeako eta lan-munduan txertatzeko norbanakoari egokitutako laguntza izateko eskubidea. ■ Laguntza ekonomikoen artean, abian jarriko da Gizarteratzeako eta Gizarte Babeserako Diru-sarrerak bermatzeako errenta, lanbidearteko gutxieneko soldataren 	<p>a) Laguntzak izapidetzeko sistemen hobekuntza, eskatzen direnetik ebazten diren arte, eta eskaerak ebazteko orduan, denbora-kontrolak eta ebaluatzeako zein kontrolatzeko beste modu batzuk ezartzeko aukera kontuan hartzea.</p> <p>b) Udalekiko koordinazioan sakontzea eta aurrera joatea, eta koordinatzeko ildo irekiak finkatzea.</p> <p>c) Programa informatikoak aldatzea, eta errealitate berrira egokitzeko eta informazioa nahiz datuak eskuratzeko orduan erraztasunak eta hobekuntzak sustatzea.</p> <p>d) Legeak jasotzen dituen laguntzak ebazteko orduan hobetzeko eta laguntzeko berariaz</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Laguntza jasotzen duten pertsonen urteko kopurua. Altak / bajak. 2. Onuradunen eta prestazioen ezaugarriek izandako bilakaera (ezaugarri soziodemografikoak, laguntza jasotzen den aldiaren iraupena, laguntzen urteko batez besteko zenbatekoa, eta abar). 3. Espedienteari hasiera eman zaionetik Aldundiaren Laguntza Zerbitzura igorri arte iragandako denbora. 4. Eskabide osoa Aldundiaren Laguntza Zerbitzuan jasotzen denetik ebazten den arte iragandako denbora. 5. Urteko gastu osoa

mailara iritsiko dena, bizikidetzako unitatean pentsiodunen bat dagoenean. Horrekin batera, laneko diru-sarriren errenta osagarria sortu da eta, halaber, etxebizitzarako laguntza osagarria, eskubide subjektibo bihurtu dena. Legeak ezarritakoaren arabera, bertan jasota dauden laguntzek azken babes-sarea eratzen dute eta, ondorioz, beste prestazio edo laguntza batzuk ezin izango dira horien osagarri izan.

- Lege berriak orain arte baliatu dugun filosofia erabat aldatzen ez badu ere, lege-esparru berriak goratu egin da laguntzak kudeatzeko eskakizunen maila, eta onuradunengandik hurbil egoteko eta administrazio kudeatzaileen artean koordinatzeko beharra ezarri da. Ildo horretan, araudi berria betetzeko, Foru Aldundiak jarrera proaktiboa izan behariko du araudiaren eskakizunetara egokitzeko orduan, batez ere erabiltzaileen kopurua gehitu daitekeela kontuan izanda.

sortutako lankidetz-organoetan parte hartzea.

- e) Herritar guztiei, Departamentuaren web orriaren bitartez, nahiz laguntzen onuradunei eta laguntzak kudeatzeko ardura duten profesionaleri laguntzei buruz ematen zaien informazioa hobetzea.

6. Udal gastuaren urteko tasa (1.000 biztanleko)

7. Onuradunen udal-tasa.

1. ARDATZA. OINARRIZKO GIZARTE ESKUBIDEAK ESKURATU AHAL IZATEA
1. ARLOA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK

2. JARDUN ILDOA. GIZARTERATZEKO ETA GIZARTE BABESERAKO DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA KUDEATZEKO SISTEMA HOBETZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<p>■ 18/2008 Legeak hainbat aldaketa sartu ditu Diru-sarrerak bermatzeko errentan, eta aurreantzean errenta hori emango zaie soldatarik ez duten pertsonei, beren diru-sarrerak Diru-sarrerak bermatzeko errentaren mailatik beherakoak direnean; era berean, errenta jaso ahal izango dute maila horretatik behera dauden kotizaziopeko eta kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten pertsonen, lege honen arabera unitate ekonomiko berregainak direlako, beren mendeko diren pertsonekin batera.</p> <p>■ Legean, era berean, eta prestazio horren barruan, jasota dago guraso bakarreko familientzako berariazko laguntza osagarria. Legeari jarraituz, halaber, administrazio publikoek aldiakako azterketak egingo</p>	<p>a) Laguntzak izapidetzeko sistemen hobekuntza, eskatzen diren unetik; horretarako, kudeatzeko tresnak sartu eta eguneratu egin behar dira eta langile laguntzaileak kontratatu, eta kudeatzeko zein izapideak egiteko sistema eta talde berezituak ezartzeko aukera kontuan hartu behar da.</p> <p>b) Eusko Jaurlearitzari, interpretazio irizpideak ezarri eta amankomunean jartzeko, erreklamazioak ebatzi eta Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko baldintzak ezartzeko, 18/2008 Legean aurreikusitako Gizarteratzeko Erakundearteko Batzordearen barruan batzorde bat sortzeko proposamena egitea.</p> <p>c) Gizarte Babeserako eta Gizarteratzeko Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko araudiaren garapenaren esparruan eta</p>	<p>1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten eta pentsiodunenez osatuta dauden famili unitateen kopurua handitzea.</p> <p>2. Prestazio honen esparruan, guraso bakarreko unitateei emandako berariazko diru laguntzen kopurua.</p> <p>3. Bi urteko indarraldia amaitzean laguntza berritu ez izanaren ondorioz, gertatu diren laguntza-irautingipenen kopurua.</p>

dituzte, eta eskabidea bi urtean behin berritu behar da, egoera berezi jakin batzuetan izan ezik.

- Aldaketa horiek, eta laguntzaren arau-garapenaren ondorioz egiten direnek, berariazko hainbat aldaketa eta hobekuntza sartzerara behartuko dute, Gipuzkoan Diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko xedapen berrietara egokitu ahal izateko.

onuradunek Diru-sarrerak bermatzeko errenta kobratu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzari etxebizitza kolektibo ez-iraunkorretan bizi diren famili unitateen definizioa zehazteko proposamena egitea.

d) Guraso bakarreko unitateentzako laguntza ekonomiko osagarria kudeatzeko sistema ezartzea, 18/2008 Legearen arau-garapenean zehaztutakoaren arabera.

e) Laguntzaren bi urtean behingo berritzea kudeatzeko sistema ezartzea, 18/2008 Legearen arau-garapenean zehaztutakoaren arabera.

1. ARDATZA. OINARRIZKO GIZARTE ESKUBIDEAK ESKURATU AHAL IZATEA
1. ARLOA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK

3. JARDUN ILDOA. LANEKO DIRU-SARREREN ERRENTA OSAGARRIA EMATEKO BEHARREZKOAK DIREN NEURRIAK HARTZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Gure inguruan gertatzen diren pobrezia-egoeren zati batek soldata txikiekin zerikusia du. Beste alde batetik, diru-sarrerak bermatzeko laguntza ekonomikoak mailaren eta soldata baxuenen artean dagoen alde eskasak zailtasunak sor ditzake pertsona horien lan-aktibazioan (pobrezia-erantzun tranpa). ■ Hori dela eta, 18/2008 Legearen bidez, Gizarte Babeserako eta Gizarteratzeko Diru-sarrerak bermatzeko errentaz gain, Laneko Errenten Laguntza Osagarria izeneko laguntza ere sortu da, laneko diru-sarrerak izanda ere Diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekora iristen ez diren bizikidetzak-unitateen diru-sarreraren maila osatzearren. ■ Legean, zenbait alderditan, laguntza horri buruzko araudira bidaltzen bada ere, enplegua sustatzeko egungo sistemaren filosofia mantentzen da, hau da, norberaren diru-sarrerak zenbatzean, laneko diru-sarreraren proportzio jakin bat kentzea eta, hala, aldi baterako izaera ematen zaio irudi horri. 	<p>a) Diru-sarrerak bermatzeko errentaren modalitate batetik bestera era automatikoa</p> <p>igarotzea ahalbidetzen duten antolaketa-sistemak ezartzea.</p> <p>b) Eusko Jaurlaritzari, laguntza horren barruan sartzen diren enplegua sustatzeko neurriei buruzko araudi-garapenaren esparruan, sistema egonkorra ezar dezan proposatzea, ulertzen eta kudeatzen errazagoa dena,</p> <p>Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen enplegua sustatu eta soldata txikiak dituzten langileak babestu ahal izateko.</p>	<p>1. Laneko errentaren osagarria jasotzen duten pertsonen kopurua.</p> <p>2. Pertsona horiei emandako laguntzen batez besteko zenbatekoaren bilakaera, eta enplegua sustatzeko izandako guztizko gastua.</p>

1. ARDATZA. OINARRIZKO GIZARTE ESKUBIDEAK ESKURATU AHAL IZATEA
1. ARLOA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK

4. JARDUN ILDOA. ETXEBIZITZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIA EMATEKO BEHARREZKOAK DIREN NEURRIAK HARTZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ 18/2008 Legearen bidez, Gizarte Babeserako eta Gizarteratzeko Diru-sarrerak bermatzeko errentaz gain, Etxebizitzarako Laguntza Osagarria izeneko prestazioa ere sortu da, laguntza jasotzen duten onuradunek etxebizitzaren alorrean dituzten premiei –eta berariaz alokairu-gastuei dagokienez– erantzuteko asmoz. ■ Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunentzat oso laguntza sensiblea da. Laguntza hau eskubidezkoa hartu daiteke eta Udalek kudeatzen dituzten Gizarte Larrialdietako Laguntzaren ordezkoa da. 	<p>a) Osagarri hori jaso dezaketen onuradunei ordaintzea ahalbidetzen duten antolaketa-sistemak ezartzea.</p> <p>b) Udalekin kudeaketa koordinatua gauzatzeko, beharrezkoak diren errekturso tekniko eta antolakuntzari lotutako enplangintza egin.</p> <p>c) Laguntza honen onuradunen interesak gutsietsi gabe, bere betearazpena bermatzeko prozedurak planifikatu eta koordinatu.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Diru-sarrerak bermatzeko errentarekin batera etxebizitzarako osagarria jasotzen duten onuradunen kopurua. 2. Laguntza osagarri horren batez besteko zenbatekoa eta horretarako erabiltzen den guztizko gastuaren batez bestekoa.

1. ARDATZA. OINARRIZKO GIZARTE ESKUBIDEAK ESKURATU AHAL IZATEA
1. ARLOA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK

5. JARDUN ILDOA. GIPUZKOAN, GIZARTERATZE LAGUNTZA BEREZIEI BURUZKO ARAUDI BERRIA EMATEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Autonomia erkidegoan ezarritako laguntzei dagokienez, diru-sarrerak bermatzeari buruzko araudiak foru-eremuan laguntza osagarriak ematea eragotzen badu ere, ez du baztertzeko laguntza gehigarriak ematea Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubideak betetzen ez dituzten eta, nolatan ere, oinarrizko premiak estaltzeko begien bistako beharra duten pertsonen. ■ Proposatzen den jarduketa alderdi hauetan oinarrituta dago: <ul style="list-style-type: none"> ● Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean, pobrezia larria saihesteko beharra. ● Izaera bereziko aldirizkako laguntza emateko beharra; laguntza mugatuta egongo da eskuratzeko baldintzei nahiz iraupen, kostu eta zenbatekoari dagokienez. 	<p>a) Gizarteratzeko laguntza bereziei buruzko araudi berria ematea, baldintza hauek betetzen dituzten familiek eta pertsonen laguntza hori eskura dezaten:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● berezko baliabide ekonomikorik ez izatea, eta Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo beste laguntza ekonomiko batzuk eskuratzetik ez edukitzea; ● sei hilabetez gutxienez erroldatuta egotea; ● adinez nagusia izatea ● 18 urtetik 23 urte bitartekoak izango dute dirulaguntza hau jasotzeko eskubidea, beti ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteria Zerbitzuko adin txikiakoen tutoretzako programaren batean parte hartu badute, eta programa bukatu eta gero emantzipatzen laguntzeko egoitzaren batean sartu ez badira. Urgentziazko prozeduraren bidez lortu ahal izango dute. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Laguntzaren ezaugarriak, zenbatekoak eta eskuratzeko irizpideak ezartzen dituen araudia ateratzea. 2. Laguntza jasotzen duten erabiltzaileen urteko kopurua: altak / bajak. 3. Laguntza berriari esleitutako urteko aurrekontu-saila. 4. Jasotzaile bakoitzak hartzen duen urteko eta batez besteko zenbatekoa.

- laguntza horren jasotzaileak Gipuzkoako gizarte-baliabideen sarean sartzeko beharra eta, bereziki, laguntza hori eskuratzea norbanakoari zuzendutako gizarteratzeko ibilbidearen barruan sartzeko beharra.

- gizarteratzeko hitzarmena sinatzea, Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunekin sinatzen denaren antzekoa.
- b) Laguntza hilerokoa izango da, eta berrazter daitezkeen sei hilabeteko epeetan emango da.

1. ARDATZA. OINARRIZKO GIZARTE ESKUBIDEAK ESKURATU AHAL IZATEA
2. ARLOA. LAN-MUNDUAN TXERTATZEA

6. JARDUN ILDOA. SARBIDEAK PROGRAMA INDARTZEA, GIZARTE-BAZTERKETA JASATEN DUTEN EDO JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONAK LAN-MUNDUAN TXERTATZEKO OINARRIZKO TRESNA GISA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Enplegua gizarteratzeko tresnarik garrantzitsuena dela baieztatu daiteke; hori dela eta, Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiak hainbat ekimen sustatzen ditu, lan-munduan txertatzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua lortzea erraztera bideratuta. ■ Azken urte hauetan, helburu hori erdiesteko egindako programak identifikatu egin dira, eta bilakaturik joan dira, azkenean SARBIDEAK programak sortu arte. Programa horiek Enplegu Plana osatzen dute, Gipuzkoan enplegua eskuratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen zuzenduta. ■ SARBIDEAK programak hiru jardun-ildotan banatuta daude: ● SARBIDE prestakuntza: Lan-munduan txertatze sustatzeko programa, arlo hauen bitartez: <ul style="list-style-type: none"> - informazioa/ orientazioa, 	<p>a) SARBIDEAK programen urtean behingo deialdia mantentzea, eta programen edukiak merkatuko eskaeretan dauden aldatetara egokitzea.</p> <p>b) Enplegua sortzeko proiektu berritzaileetan lankidetzan aritzea.</p> <p>c) Gizarte-enpresen sehaska baten sorrera sustatzea, bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzat enplegua sortzeko Europako programaren barruan.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Deialdiak egokitzea. 2. Lankidetzan aritzeko proiektu berritzaileen kopurua. 3. SARBIDEAK programen bidez eta enpresa-sehasparen bidez sortutako lanpostuen kopurua.

- gizarteratzearen alorreko berariazko prestakuntza,
- lan-praktikak, prestakuntza- eta lanbide-ibilbidearekin koherentzian.
- SARBIDE berrikuntza: Lan-munduan txertatzea eta lanbideratzea sustatzeko ekimenak, programa berritzaileen bitartez:
 - gizarte-enpresen sehaska bat sortzea, Saiatu Proiektuaren esparruaren barruan, Europako Gizarte Foroak diruz lagunduta, "Egokigarritasuna eta Enplegua" izeneko programaren barruan;
 - enplegua eskuratzen eta familia eta lana uztartzen laguntzeko programak.
- SARBIDE autoenplegua: nor bere lana sortzeko ekimenei laguntzeko neurriak:
 - bideragarritasun-planak garatzeko, proiektuak babesteko eta ezartzeko gastuetan laguntzeko diru-laguntzak, eta proiektuen tutoretza eta segimendua egiteko diru-laguntzak;
 - ekintzailetzan prestatzeko laguntza-programak.

1. ARDATZA. OINARRIZKO GIZARTE ESKUBIDEAK ESKURATU AHAL IZATEA
2. ARLOA. LAN-MUNDUAN TXERTATZEA

7. JARDUN ILDOA. ENPLEGUA ESKURATZEKO ZAILTASUNA DUTEN PERTSONAK LAN-MUNDUAN TXERTATZEKO BALIABIDEAK ANTOLATZEKO ZERBITZUEN KATALOGOA EDO MAPA EGITEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Lan-munduan txertatzea sustatzeko orduan esku hartzen duten era askotako eragileen aniztasuna eta koordinaziorik eza arazo dira, horien ondoriozkoak direlako baliabideak ez ezagutzea, ahaleginak bikoiztea eta erabiltzaile nahiz profesionalen desorientazioa. ■ Egindako proposamenaren bidez, hau lortu nahi dugu: <ul style="list-style-type: none"> ● Gipuzkoan, lan-munduan txertatzea eta lanbide-prestakuntza sustatzeko orduan esku hartzen duten era askotako eragileen eginkizunak argitzea. ● Zerbitzuak eskaintzean bikoiztasuna saihestea eta baliabideak esleitzean arrazionalago jokatzeko erraztasunak ematea. ● Lan-munduan txertatzearen inguruan sortzen diren era askotako premiak eta arazoak estaliko direla bermatzea. ● Ereduaren profesionalak eta erabiltzaileak orientatzea, baliabideen aprobetxamendua eraginkorragoa izan dadin. 	<p>a) Lan-munduan txertatzeko Gipuzkoan dauden baliabideen katalogoa edo mapa egitea eta bertan alderdi hauek jasotzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Orientaziorako eta lan-munduan txertatzeko eredu eragingarria eratzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eta laguntzak; eredu egokitu egongo da gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen ezaugarri eta beharretara. ● Zerbitzu horietako bakoitzak bere gain hartu behar dituen bezeroen edo/eta beharren ezaugarriak. ● Gaur egun zerbitzu horiek ematen dituzten eragileak. ● Sistema berrantolatzeako eta sistemaren barruan eginkizunak esleitzeko irizpideak. <p>b) Gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten pertsonen laguntzeko enplegu-orientatzaileak identifikatzea.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Katalogoa/mapa egitea. 2. Gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonentzat egindako orientazio-ekintzen kopurua.

1. ARDATZA. OINARRIZKO GIZARTE ESKUBIDEAK ESKURATU AHAL IZATEA
2. ARLOA. LAN-MUNDUAN TXERTATZEA

8. JARDUN ILDOA. ENPLEGU-PROGRAMAK HEDATZEA ETA ENPLEGUA ESKURATZEKO JARDUNBIDE EGOKIAK SORTZEN LAGUNTZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiak enplegu-programak sustatzen ditu, ahulenak diren taldeei zuzenduta (ezgaitasuna duten pertsonak, emakumeak, gazteak, lehenengo enpleguaren bila ari direnak, luzaroko langabeak diren emakumeak, eta abar). Zuzendaritzak, gainera, esku hartzen du hainbat programatan, lan-munduan txertatzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen enplegua eskuratzeko erraztasun handiagoa izateko eta beren enpleguaren kalitatea sustatzeko. ■ Ekimen horiek izandako emaitza onak kontuan izanda, beharrezkoa da, alde batetik, egindako enplegu-programak hedatzeko kanpaina egitea, eta, bestaldetik, aurrerago joatea proiektu mota horretan eta jardunbide egokien sorreran esku hartzeko orduan. 	<ul style="list-style-type: none"> a) Enplegu-programak hedatzeko kanpainak egitea. b) Beste erakunde batzuek sustatutako proiektuetan parte hartzea eta lankidetzan aritzea, lan-munduan txertatzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen enplegua eskuratzeko erraztasun handiagoa izateko eta jardunbide egokiak abian jartzeko. c) Hautazko praktika onen publikazio eta ezagutarazpena. 	<ul style="list-style-type: none"> 1. Enplegu-programak hedatzeko kanpainaren barruan prestatutako ekintzen eta publizitate-mezuen kopurua. 2. Departamentuak zenbat lankidetzaproiektutan esku hartzen duen.

1. ARDATZA. OINARRIZKO GIZARTE ESKUBIDEAK ESKURATU AHAL IZATEA
2. ARLOA. LAN-MUNDUAN TXERTATZEA

9. JARDUN ILDOA. LAN-BATZORDE BAT SORTZEA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESPARRUAN GIZARTE-KLAUSULEN SISTEMA EZARTZEA BIDERAGARRIA DEN AZTERTZEKO ETA SISTEMAREN EZAUGARRIAK ZEHAZTEKO

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<p>■ 12/2008 Legeak ezarritakoaren arabera, administrazio publikoek hainbat gizarte-klausula gehitu behar dituzte Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan jasota dauden zerbitzuen kudeaketarako kontratuak esleitzeko prozeduretan.</p> <p>■ Beste alde batetik, eta behin Eusko Jaurlaritzak gizarteratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntza-ildo bat zehaztu eta gero, enpresa mota hori garatzeko beharrezkoa da, oraindik, administrazioak laguntzeko neurri osagarriak hartzea. Horrela bada, proposatutako jardun-ildoak abiapuntu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • enpresa arruntetan gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonak aritzeko beharra, era horretan enpresa horien gizarte-erantzukizun korporatiboa sustatu eta 	<p>a) Foru Aldundiaren barruan, lan-batzorde bat sortzeko urratsak egitea, kontratazio publikoko prozesu batzuetan edo guztietan gizarte-klausulak ezartzea balioesten eta, egokia bada, arautzen duena; klausula horien bitartez, lehentasuna emango zaie, aurretiazko baldintza gisa (onartzeko irizpidea), balioesteko elementu gisa (puntuaketa), edo/eta betebeharrak gisa (gauzatzeko betebeharra), honako alderdi hauei:</p> <ul style="list-style-type: none"> • kontratazioarako deialdian parte hartzen duten enpresetako langileen artean, gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen kopuru jakin bat egotea; 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Aipatutako batzordea sortzea. 2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazio-prozeduretan gizarte-klausulak gehitzea. 3. Klausula horiek betetzeko, egindako kontratuen kopurua eta sortutako edo babestutako lanpostuen kopurua.

gizarte-bazterketaren aurkako borrokan parte-hartzea bultzatuko baita;

- bazterketa-egoeran dauden pertsonen kopuru handia enplegatzen duten enpresen kontratazio publikoa errazteko egokitasuna;
- gizarteratzeko enpresek merkatua erakartzeko orduan dituzten zailtasunak onartzea, eta, era berean, kontratazio publikoko prozesuetan, berdintasunaren eta konkurrentzia askearen printzipioak urratu gabe, enpresa horiei merkatuan finkatzea errazten dieten diskriminazio positiborako elementuak gehitzeko aukera ematea.

- enpresa horiek ekoizpen-prozesuaren zati bat irabazteko asmorik gabeko erakundeei eta, zehazkiago, gizarteratzeko enpresei azpikontratatea;
- lehiaketara aurkezten den erakundearen izaera, ekintza positiboko irizpideak zehaztu behariko baititu irabazteko asmorik gabeko erakundeei dagokienez eta, zehazkiago, gizarteratzeko enpresei dagokienez.

1. ARDATZA. OINARRIZKO GIZARTE ESKUBIDEAK ESKURATU AHAL IZATEA
2. ARLOA. LAN-MUNDUAN TXERTATZEA

10. JARDUN ILDOA. LAGUNDUTAKO ENPLEGU-SISTEMAK GARATZEA, GIZARTE-BAZTERKETA JASATEN DUTEN EDO JASATEKO ARRISKUA DUTEN PERTSONEI BERARIAZ ZUZENDUTA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Ezgaitasuna duten pertsonak lan-munduan txertatzeko, ingurune arruntean lagundutako enplegu-formula batzuk garatu dira herrialde askotan; lan-modalitate horren bidez, ezgaitasuna duten pertsonen arreta ematen zaie, profesional adituak laguntzaz, lan egiteko orduak laguntza iraunkorra eskainita, gizarteratzeko lanegietan ordaindutako enplegua aukeratzeko, lortzeko eta mantentzeko helburuaz. Ikuspegi mota hori, hala ere, oso eskas garatu da gizarzte-bazterketaren esparruan. Gure inguruan, garatu egin dira programa mota horiek, oraindik aski ez badira ere, eta emaitza positiboak ematen ari dira, oro har. ■ Gauzak horrela, neurri honen bidez, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak lan-merkatu arruntean txertatzeko programak garatu nahi dira; horretarako erabili nahi den sistemak bere baitan batzen ditu enplegua 	<p>a) Erakunde espezializatu bati inguru metodologiko bat egituratzeko eskaera egitea; horrek ahalbidetu behar du ezgaitasuna duten pertsonen zuzenduta dauden lagundutako enplegu-formulak eta gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen beharretara egokitzea.</p> <p>b) Gizarteratze zentroetan aurkitzen diren pertsonen lehenetsuna ematea gizarzte eta lan alorreko ibilbidetan sartzerakoan.</p> <p>c) Ikuspegi horretan oinarrituta ekintza-programak garatzen dituzten gizarte-ekimeneko erakundeek zati bateko finantzaketa geure gain hartzea,</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Enplegu lagundua sustatzeko sistemen erabiltzaile diren pertsonen kopurua. 2. Programa garatzeko zehaztutako gastua.

bilatzeko, lan-orientaziorako, gizarteratzen laguntzeko eta enpleguari laguntzeko teknikak.

Ikuspegi kontzeptualetik begiratuta, oinarri hauek ditu proposamenak:

- gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonak lan-munduan txertatzeari lehentasuna emateko borondatea;
- lanpostu jakin batean jardute hutsaz harago, gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen beharrek ezinbesteko egiten dute pertsona horiei banan-banako laguntza ere ematea, behin lan-munduan txertatu direnean;
- ildo horretan, irabazteko asmorik gabeko erakundeetan abian jarri diren ekimenei laguntza tekniko eta ekonomikoa eman behar zaie.

hitzarmenaren bidez, edo diru-laguntzen ildo bat zehaztuta.

- d) Programa horren barruan, kontratatzeko laguntzen ildo paralelo bat ezartzea, kontratazioak egiten dituen enpresaren kostuak murriztearren; laguntza horiek emango zaizkie, zehazki, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen kontratazioarako laguntzak eskuratzerik ez daukaten enpresei.

1. ARDATZA. OINARRIZKO GIZARTE ESKUBIDEAK ESKURATU AHAL IZATEA
2. ARLOA. LAN-MUNDUAN TXERTATZEA

1.1. JARDUN ILDOA. LAN-MERKATUAN TXERTATZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONEN SEME-ALABAK ZAINTZEA
HALBIDETZEN DUTEN LAGUNTZAK EDO/ETA ZERBITZUAK GARATZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Laneko eta familiako betebeharrak uztartzeko zailtasunek eragozten dute emakume askok lana eskuratzea, eta batez ere baliaibide ekonomiko urriagoak dituzten eta gaizki ordaindutako lanpostuak eskuratzen dituzten emakumeek. Hala ere, oraindik ez dira nahikoak haur-eskolekako plaza erreserbatzeko dauden neurriak, ezta zentro horietara joateak sortzen dituen gastuak estaltzeko laguntza-ildoak edo guraso bakarreko familien buru diren emakumeei bereziki zuzendutako haurrei arreta emateko programak ere. ■ Diagnosi horretan oinarrituta, egindako proposamenak oinarri hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> ● lan-jarduerako tasak handitzeko beharra, batez ere seme-alabak dituzten emakumeen artean, arrazoi hauek direla kausa: a) haur-pobreziaren aurrean, emakumeak lan-munduan txertatzea 	<p>a) Guraso bakarreko familiak lan-munduan txertatzea eta familiako erantzukizunak uztartzearen, haurrei banan-banan arreta emateko programen garapena sustatzea, eta horien finantzaketa zabaltea, helburu hauek erdiesteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● onuradunen kopurua handitzea eta guraso bakarrekoak ez diren familietara ere zabaltzea, bi ezkontideek lan egiten dutenean; ● onuradun bakoitzari eskainitako arreta-orduak gehitzea; ● programaren estaldura geografikoa zabaltea; ● zerbitzua emateko orduan, profesionalizazio-irizpideak sustatzea, jarduera bera enplegu 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Haurrei arreta emateko aipatutako programen erabiltzaile diren pertsonen kopurua. 2. Programa garatzeko zehaztutako gastua.

babesteko modu eraginkorra da; b) lan-munduan txertatutako emakumeen kopuru handiak berekin dakar zerbitzuen sektorean lanpostu ugari sortzea, emakume horiek estaltzen ez dituzten beharrei erantzuteko;

- seme-alabak dituzten familietako haurrei arreta emateko zerbitzu egokiak bermatzeko beharra, hau da, zerbitzuak arretaren kalitatearen eta familia horien premietara egokitzearen aldetik egokiak izateko beharra;
- soldata txikiak jasotzen dituzten emakumeentzat haurrei arreta emateak benetan duen kostuaren zerga-tasa handia murrizteko beharra;
- administrazio publikoak ezinbestez esku hartu behar duela onartzeko beharra; administrazioak bere gain hartu behar du –ikuspegi ekonomikotik nahiz zerbitzuen kalitatea bermatzeko ikuspegitik– familiei kanpoko laguntzak eskaintzea, mendekotasuna duten familiakideen premiei erantzun ahal izateko.

arautua eta kalitatezkoa sortzeko alderdi bat izan dadin, haurrei etxez etxeko arreta emateko sektorean.

2. ARDATZA. ESPARRU ERAGINKOR NAGUSIA

12. JARDUN ILDOA. DIAGNOSIA EGITEKO ETA BIGARREN MAILAKO ARRETA-BALIABIDEETARA BIDERATZEKO SISTEMA EZARTZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Errekurtsoetan sartzeko diagnosia eta orientabidea foru eskumena izanda, berau asumitu eta ezartzea, gizarteratzeko programen garapen zuzena bermatzeko. ■ Era horretan mugatuta funtzionatzeak berekin ekarri du behar bezalako orientazioak beti ez egitea; hala, zenbait egoeratan, beharrezkoa izan da plangintzak aldatzea, hasita egon arren, edo sarean sartu dira Gizarte Zerbitzuen sareko beste zerbitzu batzuetan lagundu beharrekoak ziren pertsonak. ■ Oro har onartzen den egoeretako bat izaten da sarean buruko gaixotasuna duten pertsonak sartzea, eta halakoetan, pertsona horiek inolako onurarik ez izateaz gain, beste erabiltzaile batzuen prozesuak ere oztopatu izan dituzte. 	<p>a) Balioesteko tresna edota eskala ezartzea, arreta ematen zaion pertsona bakoitza zer bazterketa-egoera edo -mailatan dagoen objektibotasunez zehazteko gai dena; tresnak bateragarria izan behar du udalek erabilitako gizarte-erregistroekin, eta baliabideak banatzeko era arrazionalagoa ahalbidetu behar du.</p> <p>b) Diagnosi, orientazio eta bideratzea gauzatzeko tresna esparru honetan esku hartzen duten gainontzeko eragileekin batera koordinatuta erabiltzea, eta bereziki udalako oinarriko gizarte-zerbitzuekin (horiek baitira diagnostikoa eta orientazioa egiteko lehenengo arduradunak) eta bigarren mailako arreta-zerbitzuak eskaintzen dituzten hirugarren sektoreko erakundeekin ere.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Tresna honetan oinarrituta, egindako balioespenen eta orientazioen kopurua. 2. Zerbitzuak eskuratzea arautzen duen dekretua. 3. Beste zerbitzu batzuetara bideratzeko proposamenen kopurua. 4. Egindako bideratzeen kopurua. 5. Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzutik eratorritako pertsonen kopurua.

■ Aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte-bazterketa jasaten dutenentzako egoitza eta baliabideetan sartzeari buruz emandako araudia aldatzeko beharra nabarmendu behar dugu; hala, aldaketa hori Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen II. Mapan eta Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean nahiz egin beharreko Legearen arau-garapenean adierazitako berrikuntzei jarraituz gauzatu behar da.

- c) Arreta berezituaren baliabideak eskuratzeko era arautzen duen dekretu berri bat diseinatzea, argitaratzea eta ezartzea.
- d) Gizarte Zerbitzuen sareko Batzorde Soziosanitarioan parte hartzea, eta bertatik buruko gaixotasuna duten eta beren beharretara egokitutako baliabideetatik baztertuta dauden edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonak bideratzeko irizpide bateratuak sustatzea, errekurtsio berrien definizio eta ezartzeari buruzko balorazioa eginez, noizean behin.
- e) Zerbitzuen arteko transferentzia egiteko prozedurak diseinatzea.
- f) Prozesu guzti hau jasoko duen prozedura diseinatu.

2. ARDATZA. ESPARRU ERAGINKOR NAGUSIA

13. JARDUN ILDOA. GIZARTERATZEAREN ESPARRUAN LAN EGITEN DUTEN ERAKUNDE PRIVATUEKIN LANKIDETZAN ARITZEKO HITZARMENAK HOBETZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<p>■ Ongizatearen ekonomia mistoaren esparruan, gizarte-ekimeneko erakunde pribatuek gizarte-bazterketa eta enpleguarekin lotuta dauden foru-titulartasuneko zerbitzu gehienak emateko ardura dute. Azken urteotan, Foru Aldundiak ahalegin handia egin du erakunde horiek finantzatzeko orduan. Hala eta guztiz ere, erakunde horiek gehienek lan egiteko zailtasun ekonomiko nahiko larriak dituzte eta, horren ondorioz, murrizpenak gertatzen dira, askotan, langileen kopuruari edo azpiegituren mantentzeari dagokienez.</p> <p>■ Beste alde batetik, gure lurraldean, zerbitzu publikoen kudeaketa pribatua da nagusiki, eta hala, horretan jarduteko irizpide argiak definitzeko beharra dago, eta baita zerbitzuak eskuordetzean gardentasunez jarduteko nahiz bi alderdientzat onuragarriak diren baldintzak ezartzeko beharra ere.</p>	<p>a) Erakunde pribatuekin zerbitzuak hitzartzeko ezarritako baldintzak definitzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • dauden hitzarmenak berraztertzea, hitzarmen horietan guztietan helburu eraginkor eta ebaluagarriak ezartzeko; • hitzarmenen aldizkakotasuna zehaztea; • lehiaketetan, diskriminazio positiboko politikak egitea lehenetsuna emanez irabazteko asmorik gabeko erakundeei zerbitzuak esleitzeari, betiere, baldintza berdintasuna bermatuz; • ebaluatzeko, ikuskatzeko eta kontuak emateko sistemak; • hitzarmenak ebazteko suposizioak eta mekanismoak. <p>b) Zerbitzuak hitzartzeko –bai gizarteratzearen esparruan, bai gizarte-zerbitzuetako beste esparru batzuetan–, gure inguruan ezarritako</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Plaza bakoitzeko kostuari buruzko azterketa egitea. 2. Azterlanean zehaztutako plaza bakoitzeko kostuak zer mailatan egokituta dauden hitzarmen bakoitzean ezarritako plaza bakoitzeko kostuetara. 3. Egoitzetako langileak eta egokitzen jotzen direnak zein mailatan dauden elkarri egokituta. 4. Zerbitzuak erabiltzearen truke zenbatekoren bat ordaintzen duten erabiltzaileen kopurua, eta era horretan guztira jasotako kopuruak.

5. Hitzarmenak egokitzea, alderdiek bete beharreko klausulak –izaera kuantitatibo zein kualitatibokoak– barnean sartzeko.

plaza bakoitzeko kostuari buruzko azterketa, eta baita hitzarmenaren bilakaera nahiz zerbitzu guztien intentsitate- eta eskakizun-mailari buruzko azterketa ere, egitea.

c) Programa eta zerbitzuetara egokitu-tako langile/erabiltzaileen ratioak ezartzea.

d) Berrazterketa horren barruan, hitzartutako zerbitzuetako langileei buruz ezinbestez betebeharreko klausulak ezartzea, horren barnean daudela langileek jasoko duten gutxieneko soldata, horiek kontratatzeko baldintzak eta izan behar duten kualifikazioa, betiere sektoreak ezartze-koak diren lan-hitzarmenen arabera.

e) Erabiltzaileak gizarteratzen laguntzeko programekin lankidetzan ari diren erakundeek bete beharreko kalitate-estandar-ak eta prozesuak definitzea, eta erabiltzaileen gizarte-eskubideak errespetatu eta beteko direla bermatzea.

■ Diagnosi hori abiagunea izanda, proposatzen den jardun-ildoan irizpide hauetan oinarrituta dago:

- irabazteko asmoa duten edo asmorik gabekoak diren erakunde pribatuekin zerbitzuak hitzartzeko eta horiei eskuordetzeko prozesuak gardentasun oso-koak izan behar dira;
- hitzarmena sinatu duten erakundeek burutzen duten lanaren zailtasunarekin bat datorren ordainketa eskaini behar zaie aipatutako erakundeei, eta bi alderdien beharretara egokitu-tako finantza-harremanen esparrua zehaztu behar da;
- hitzartutako zerbitzuen gutxi-egizko finantza-keta saihestu behar da, hartara, zerbitzu horien kalitatea, erabiltzaileen edo profesionalen ziurtasuna, edo gizartera transmiti daitekeen horien irudia arriskuan jar ez dadin;
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeetako enpleguaren kalitateari buruzko irizpideak zorrotzak direla bermatu behar da.

2. ARDATZA. ESPARRU ERAGINKOR NAGUSIA

14. JARDUN ILDOA. GIZARTERATZEAREN ESPARRUAN, GIZARTE POLITIKAK DEFINITZEN LAN EGITEN DUTEN ERAKUNDEEK PARTE HARTZEKO BIDEAK SUSTATZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Gizarte-bazterketarako kausa anitz daude eta, ondorioz, bazterketa prebenitzeko, arintzeko edo desagerrarazteko zerbitzuak prestatzen ari diren erakundeak ugari dira; baina, horrek ez du berekin ekarri eragileen arteko koordinaziorako beharrezkoak diren bideen kopuru nahikorik sortzea. Era berean, ez dira behar bezala garatu herritarrek parte hartzeko mekanismoak, erakundeek, horien bitartez, gaiarekin zerikusia duten pertsonen eta entitateen iritzia jaso ahal izateko eta, ahal den neurrian, bazterketaren aurkako ekintzak adosteko. ■ Beste alde batetik, adierazi behar dugu Gipuzkoako Lurralde Historikoan berezko ildo bat daukagula, gizarte-bazterketarekin zerikusia duten fenomenoak ikertzeko eta aztertzeko. 	<p>a) Gizarteratzeko Kontseilu Aholkulariaren sorrera sustatzea, lurralde-eremukoa, behatoki-egitekoea bere gain hartzen duena. Bertan, erakunde hauen ordezkariak parte hartuko dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gipuzkoako Foru Aldundia; • Lurralde Historikoko udalak; • Gizarteratzeko zerbitzuak ematen dituzten edo/eta gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen eskubideak defendatzen dituzten erakundeak, eta zerbitzuen eta prestazioen erabiltzaileen ordezkariak, mota horretako elkarteak baldin badaude. <p>b) Kontseiluaren egitekoak, erabakiak hartzeko prozedurak eta aipatutako Kontseilu Aholkulariari atxikitako lan-batzordeak arautzea.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kontseilua sortzeko eta eratzeko beharrezkoa den araudia ematea. 2. Kontseiluak egiten dituen bileren, txostenen eta jardueren kopurua. 3. Behatokiak egiten dituen txostenen edo jardueren kopurua. 4. Egindako azterketen edo ikerketen kopurua.

- Diagnosi hori kontuan izanda, proposatzen den jarduketa alderdi hauetan oinarrituta dago:
 - gizarte-erakundeek eta herritarrek antolatutako erakundeek gizarte-bazterketaren aurkako politikak definitzeko orduan parte hartzeko bideak sortzeko beharra, eta zerbitzuen eta prestazioen erabiltzaileek parte hartzea bereziki sustatzea;
 - eztabaidatzeko, ikertzeko eta aztertzeko foroak sortzeko beharra, gizarte-bazterketaren aurkako neurriak hartu baino lehenagoko eztabaida aberasteko eta Lurralde osoan ezarritako zerbitzu-sareari homogeneotasuna emateko.

- c) SiiS erakundearen bidez kudeatutako Behatokiaren eginkizuna zabaldu, gizarte bazterketa eta genero indarkeriaren arloetan.

2. ARDATZA. ESPARRU ERAGINKOR NAGUSIA

15. JARDUN ILDOA. GIZARTERATZEKO DAUDEN BALIABIDEAK ETA ZER OKUPAZIO-MAILA DUTEN EZAGUTZEKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK EGITEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<p>■ Gizarteratzearen esparruan lan egiten duten eragileek, zenbaitetan, ez dute behar adinako sakontasunez ezagutzen baliabideen mapa. Mapa ezagutzen dutenean, informazioa ez dago beti eguneratuta, eta ez dago aldizka eguneratzeko mekanismorik, zer baliabide mota den, zenbat plaza dauden edo sartzeko baldintzak zeintzuk diren jakiteko.</p> <p>■ Egoera hori kontuan izanda, proposatutako jardun-ildoak behar hauetan oinarrituta dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> • gizarteratzearen esparruan esku hartzen duten bakoitzean eskaintzen dituen aukerak erakunde guztiek baliabideen mapa eta une zehaztasunez ezagutzea, baliabideak era arrazionalagoan aprobetxatu ahal izateko; • komunikaziorako bide arinak sortzea, horien bitartez zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileek informazioa eskuratu ahal izateko; 	<p>a) Baliabideak sortzea edo daudenak moldatzea eta Departamentuko Extranetean sartu.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gipuzkoako Lurralde Historikoan, gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako gizarte-egoitza, -zerbitzu eta -programen direktorio osoa eskuragarri izatea; • direktorioan dauden baliabideetako bakoitzean sartzeko baldintzak ezagutzea; • plaza mugatuak dituzten baliabideetako bakoitzean libre dauden plazen kopurua eta itxaron zerrenden egoera etengabe eguneratuta mantentzea; • erabiltzaileak bideratzea beren beharretara hobekien egokitzen den programara, dauden baliabideak kontuan izanda. <p>b) Udalei, informazioa –itxaron zerrendak barne–, eta heziketa eskaintzea.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Aplikazio informatikoaren definizioa eta Extranetean sartzeko prozesua ezarri. 2. Aplikazioan jasotzen diren egoitzen eta plazen kopurua. 3. Programaren barruan dauden erakundeen kopurua.

- hainbat alorretan erabiltzen diren informatika- eta kudeaketa-tresnak aprobetxatzeko aukera (adibidez, foru- eta udal-zerbitzuen artean datuen transmisioa errazteko ezarritako estranet sarea), hartara sarearen erabiltzaileei baliabideen okupazio-mailari eta erabiltgarritasunari buruzko informazio eguneratua eskaini ahal izateko.

2. ARDATZA. ESPARRU ERAGINKOR NAGUSIA

16. JARDUN ILDOA. GIZARTERATZEAREN ESPARRUAN ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN EGOITZETAKO AZPIEGITURAK HOBETZEKO EKINTZA PLANA ABIAN JARTZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen zerbitzuak emateko egoitza gehienak garatu diren modua –herritarren ekimenez sortuak, beharrezko dituzten baliabide ekonomikoen hasierako zuzkidura beti izan ez dutenak- erabakigarria izan da kokapenaren, ezaugarrien edo mantentzeko baldintzen ikuspegitik egokiak ez diren espazio fisikoetan ipintzeko orduan. ■ Proposatzen dugun jardun-ildoaren abiagunea da Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiaren mende dauden zerbitzuak irisgarritasun- eta bizigarritasun-egoera egokiak dituzten egoitzetan emango direla bermatzeko beharra. 	<p>a) Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiak bere mende edo/eta hitzartuta dauzkan egoitzen mapa egitea eta alderdi hauek zehaztea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • kokapena egokia den, bertan egiten diren jardueren arabera; • instalazioen alderdi fisikoa egokia den, erabiltzaile-kopurua eta egiten diren jarduerak kontuan izanda; • instalazioak berritzeari eta/edo lekuz aldatzeari dagokienez, dauden beharrak eta aukerak; <p>b) Ezohizko jardun-plan bat egitea, esku hartzen duten erakundeekin batera, instalazioak berritzea edo/eta lekuz aldatzea errazteko, zerbitzua egungo instalazioetan mantentzea komenigarritzat jotzen ez denean.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Mapa egitea. 2. Egindako maparen ondorio diren ekintzen kopurua eta ezaugarriak.

2. ARDATZA. ESPARRU ERAGINKOR NAGUSIA

17. JARDUN ILDOA. GIZARTE ZERBITZUEN 12/2008 LEGEAK ARAUTZEN DITUEN GIZARTERATZEAREN ESPARRUKO ERANTZUKIZUNAK ETA ESKUMENAK PIXKANAKA EGOKITZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Eusko Legebiltzarrak 2008ko abenduaren 5ean onartutako Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeak aldaketa nabarmenak ekarri ditu, egungo araudiarekin alderatuta, administrazioek gizarteratzeko programen alorrean dituzten erantzukizun eta eskumenetan. ■ Berriki onartutako araudi horren bidez, orain arte behar bezain argi ez zeuden erantzukizunak zehaztasunez definituta geratu direla ulertzen dugu. ■ Behin Legea onartu denean, guztiz komenigarria da eskumenak pixkanaka argitzea eta administrazioek apurkaapurka programak eta zerbitzuak beren gain hartzea, zerbitzuen funtzionamenduan kalterik eta etenik ez sortzeko. Prozesua gauzatzeko abiapuntua izango da foru-administrazioei bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen alorreko eskumenak ematea, Legea garatzeko araudian ezarritakoaren arabera, eta bereziki 23. artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian zehaztutako Zerbitzu Karteraren gaineko Dekretuari dagokionean. 	<p>a) Zerbitzuen eta Zentroen Inbentarioa eta sailkapena egitea proposatu da.</p> <p>b) Horretarako eratzen diren batzorde edo/eta koordinazio-organoetan parte hartzea, hala nola hainbat udalerrirekin batera sor daitezkeen aldebiko batzordeetan.</p>	<p>1. Zerbitzuen eta programen inbentarioa eta sailkapena, 2008ko abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeak ezarritakoaren arabera.</p> <p>2. Foro guztietan proposatutako ekimenen kopurua.</p>

3. ARDATZA. BALIABIDE ETA ZERBITZU BEREZITUAK

18. JARDUN ILDOA. GIZARTERATZE BIGARREN MAILAKO ARRETAREN BEHARREI ERANTZUNA EMANGO DIEN EGUNEKO UNITATEEN GARAPENA SUSTATZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<p>■ Gizarte-bazterketa pairatzen duten pertsonen arreta emateko sareak zerbitzu etengabeak behar ditu, eta horien artean, zerbitzu okupazionalerik eta eskakizun txikiak eguneko eta gaueko harrera-zerbitzuek gain, heziketa- eta errehabilitazio-edukiak dituzten eguneko zerbitzuak; era horretan, gizarte-bazterketa pairatzen duten pertsonen aukera emango zaie dituzten gizarte-trebetasunak hobetzeko, aurrekoekin baino eskakizun handiagoa duten programen bitartez.</p> <p>■ Ildo horretan, Gizarte Zerbitzuen Maparen bidez, eta prestazioen katalogoaren barruan, eguneko arretako plazak gehituko dira, gizarteratzeko eguneko zentroak edo eskakizun ertaineko eguneko unitateak eskainita, gizarteratzeko prozesuari ekin dioten gizarte-bazterketa jasaten duten pertsonen zuzenduta.</p>	<p>a) Eskakizun ertaineko eguneko programak sustatzea, gizarte-bazterketa pairatzen duten pertsonen zuzenduta.</p> <p>b) Programa horiek gizarteratzeko prozesuan aurrera doazen, aldatzeko motibazio-maila jakin bat erakusten duten eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsonen eskaintzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • metadonaz mantentzeko programetan eta droga-mendekotasuna tratatzeko beste programa batzuetan parte hartzea; • zigorra betetzen ari izatea egoera honetan: bigarren eta hirugarren mailako kartzela-baimena, hirugarren graduako eguneroko irteera; eta kartzelatik atera eta gero baldintzapeko askatasuna edo behin betiko askatasuna izatea; • egonaldi ertaineko eta luzeko programetan parte hartzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiak programak mantentzeko esleitutako gastuaren zenbatekoa. 2. Laguntza jasotzen duten erabiltzaileen urteko kopurua. 3. Egin diren banan-banan esku hartzeko programen urteko kopurua.

- Proposatutako jardun-ildoak behar hauetan oinarrituta dago:
 - gizarteratzeko banan-banako programak sortzea hainbat baliabide konbinatuta, gizarteratzeko prozesuari ekin dioten eta motibazio-maila jakin bat duten pertsonen gizarteratzeko lan intentsiboa egitea ahalbidetzeko;
 - programa horiek egiteko, gaur egun dauden komunitateko baliabideak eta ekipamenduak baliatzea; hala bada, programa horiek ez dute ezinbestez oinarrituta egon behar egoitza espezifikoetan, eta herritar guztiak erabiltzen dituzten baliabideak erabil ditzakete.

c) Programa horiek oinarrituta egotea banan-banako esku hartzeko planaren diseinuan, gizarteratzeko profesionalen laguntzapean; plan horren bidez, erabiltzaile bakoitzarentzat beharrezkotzat jotzen diren egoitzen eta baliabideen erabilera antolatuko da.

d) Programa horien barruan, helburu hauek lortzeko jarduerak eskaintzea:

- gizarteratzeko trebetasunetan gaitasuna izatea (asertibitatea, barne-hersturaren kontrola, gatazkek konpontzea);
 - prestakuntzarako jarduerak (hizkuntza-ikastaroak, helduen hezkuntza, teknologia berriak, eta abar)
 - osasuna sustatzeko ekintzak;
 - etxebizitza biltzeko lantegiak;
- bizitza independentean gaitzeko lantegiak.

3. ARDATZA. BALIABIDE ETA ZERBITZU BEREZITUAK

19. JARDUN ILDOA. GIZARTE LARRIALDIETAKO FORU ZERBITZUAREN GARAPENA OSATZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Behin Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuan ordutegia zabalteko beharra identifikatu eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki du, duela gutxi, zerbitzuaren funtzionamendua 24 ordutara zabaltea, urteko 365 egunetan. Neurri horren bidez, zerbitzuaren hobekuntza kualitatiboa lortu da. ■ Horrez gain, bizilekuak jarri dira zerbitzuaren kudeatzaileen eskura, arreta ematen zaien pertsonak, arretaren beharra dutelako, beren etxean geratu ezin daitezkeen kasuetan. ■ Hala eta guztiz ere, kontuan hartzen da plaza-kopuru txiki bat gorde behar dela, unean uneko egoeretan zenbait pertsona denbora mugatuan hartu behar direnerako, eta baita gizarte-larrialdiei erantzuna emateko orduan parte hartzen duten gainontzeko eragileekin lankidetzan- eta koordinazio-harremanak mantentzeko beharra ere. 	<p>a) Gizarte Larrialdietako Zerbitzua bizileku-plazez hornitzea (larrialdietako bizilekuak).</p> <p>b) Ertzaintza, SOS Deiak eta larrialdietako laguntzan parte hartzen duten gainerako eragileekin batera jarduteko protokoloak zehaztea.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Plazez hornitzea. 2. Gizarte Laguntzen Foru Zerbitzuan lagundutako pertsonen kopurua eta ezaugarriak. 3. Protokolo sinatuak eta ezarriak.

3. ARDATZA. BALIABIDE ETA ZERBITZU BEREZITUAK

20. JARDUN ILDOA. TRATU TXARRAK JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO SAREA OSATZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Gipuzkoako Lurralde Historikoak bizitoki aski ditu tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei arreta emateko, baina egun dagoen sarea hobetu egin liteke bizitoki horietara jotzen duten emakumeei gizarte-laguntza emateko dauden baliabideak gehitu eta larrialdiko bizitokien eskaintza osagarria sortuz gero, udal-sareak inoiz izan ditzakeen hutsuneak beharrezkoa denean bete ahal izateko. ■ Gipuzkoako Lurralde Historikoak hainbat baliabide eta programa ditu, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei zuzenduta. Duela gutxi, xede hori berariaz lortzera bideratutako izaera osoko baliabide bat irekitzearekin batera, Gipuzkoako Plana izenekoa diseinatu da, genero-indarkeriaren biktimei zuzenduta, osorik gauzatu ez bada ere. 	<p>a) Udalekin koordinazio-mekanismoak adostea, genero-indarkeria pairatzen duten biktimei arreta emateko udal-baliabideei dagokienez, eskualdeen edo udalerrien esparruan zubi-etxebizitzaren sarearen garapena sustatzearren (autonomiakoak/itzulerakoak).</p> <p>b) Gipuzkoako Abokatuen Elkargoarekin aholkularitzarako hitzarmena sendotzea. Hitzarmenaren helburua Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen programek biktimei eskaintzen dieten aholkularitza osatzea da (biktimak salaketa jarri baino lehen beharrezkoa den informazioa izan dezan).</p> <p>c) Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten pertsonen eta sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeei laguntza psikosoziala emateko zerbitzua sendotzea; era berean, banan-banako gizarte-laguntzarako programa bat garatzea, udal-titulartasuneko larrialdiko etxebizitzetan dauden eta droga-mendekotasun aktiboaren arazoak, buruko patologia edo Oinarriko Gizarte Zerbitzuetan segimendua egitea zailtzen duten bestelako arazoak dituzten emakumeen egoera pertsonalaren segimendua egiteko.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Banan-banako gizarte-laguntzarako zerbitzuak arreta ematen dien emakumeen urteko kopurua. 2. Baliabide bakoitzean arreta ematen zaien pertsonen urteko kopurua. 3. Egindako txostenak

3. ARDATZA. BALIABIDE ETA ZERBITZU BEREZITUAK

2.1. JARDUN ILDOA. ADIN TXIKIKOAK BABESTEKO PROGRAMETAN PARTE HARTU DUTEN GAZTEAK EMANTZIPATZERA BIDERATUTAKO PROGRAMAK GARATzea ETA SENDOTzea

JARDUKETAREN ARRAZOITzea	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Egokia dirudi heziketa eta autonomoak izateko prozesuetan arduraz jarduten diren pertsonen (18 eta 23 urte bitartekoei), aukerak ematea. Famili gabeko gazteen gizarteratzea irtenbide zailleko arazoetako bat ikusten da Europako Batasuneko herrialde askotan. Gipuzkoako Lurraldera ere iritsi da fenomeno hori, eta denboraren poderioz adin txikikoek duten arreta-beharrak gazte horien beharra izaten jarraitzen du adin-nagusitasunera iristen direnean. ■ Horrelakoetan, egokitzat jo dugu jarraitutasuna bermatzea, arretan etenik egin gabe, eta prozesu ordenatuak definitzea, egoera batetik bestera igarotzeko orduan. Motibazio hori izanda, LORTUZ programari hasiera eman zaio duela gutxi. Programaren bidez, hasitako prozesuekin jarraitzeko eta prozesu horiei 	<p>a) Emantzipazio-prozesuan dauden gazteentzako bizi-toki-zerbitzu-etako plazak gehitzea.</p> <p>b) Gizarteratze laguntza ekonomiko bereziei buruzko araudian berriaz ezartzea gazte horiek, behar izanez gero, laguntza mota horren onuradun izatea ahalbidetzen duten mekanismoak.</p> <p>c) Koordinatze batzorde bat sortzea. Batzordean parte hartuko dute LORTUZ emantzipazio-programa kudeatzen duten erakundeetako Haur eta Gazteen Zuzendaritzaren nahiz Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritzaren ordezkariak.</p> <p>d) Emantzipazio prozesuan dauden gazteen arretarako zerbitzu zerrenda ezarriko da.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Plazen kopurua gehitzea. 2. Gizarteratze laguntza bereziak jasotzen dituzten eta emantzipatzeko prozesuan dauden gazteen kopurua, eta laguntza horietarako zehaztutako kontu-saila. 3. Irteera kopurua. 4. Prozesuarekin jarraitzen duten adin txikikoen kopurua. 5. Tutoretzaldia amaituta daukaten adin txikikoen kopurua. 6. Emantzipatzeko programetan iragandako batez besteko denbora.

positiboki erantzuteko nahia eta konpromisoa adierazten dituzten pertsoneri arretaren jarraitutasuna bermatu nahi zaie.

- Gainera, etxebizitza edo gutxieneko diru-sarrerak eskuratzeko ahultasun-egoeran daudela kontuan izanda, beharrezkotzat jotzen dugu gazte horiei egoitzetan arreta emateko zerbitzuen ahalmena handitzen jarraitzea, eta gizarteratzeko laguntza ekonomiko bereziak lortzeko aukera ematea.

7. Zentroetako irteeren sailkapena, helburuak betetzearen arabera

3. ARDATZA. BALIABIDE ETA ZERBITZU BEREZITUAK

22. JARDUN ILDOA. SEGIMENDUA EGITEKO SISTEMA BAT EZARTzea, SAREAREN EGOKITZAPEN KUALITATIBOA AHALBIDETZEARREN

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Gipuzkoan nabarmen gehitu da gizarteratzeko baliabide mota guztietako zuzkidura. Era berean, gizarteratzeko beharra duten taldeei eskainitako arretaren alorreko konpromisoak gehitu egin dira. ■ Hala eta guztiz ere, gizarteratzeko baliabideen plangintza egitean sortzen den zailtasuna kontuan izanda, eskaeren eta erantzunen bilakaera aldian behin ebaluatzeko ahaleginak egin behar dira, Kontseilu Aholkulariaren txosten eta ebaluazioetan oinarrituta (13. jardun-ildoak). 	<p>a) Egoera bakoitzean gertatzen den bilakaeraren arabera, plazak gehitzeko edo/eta eskakizun handiko bizitoki berriak sortzeko beharra, hala nola toxikomanoak, egoera kronifikatuan dauden pertsonak eta abar gizarteratzeko beharra adierazten duen alerta-sistema bat ezartzea.</p> <p>b) Behar horiek kontuan izanda, beharrei erantzuna emateko bizitoki esperimentalak eskaintzeko aukera aztertzea, adibidez ostatu gainbegiratuak, tutoretzapeko apartamentuak, eta abar.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Egoitza horietan laguntza jasotzen duten erabiltzaileen urteko kopurua. 2. Erabilgarri dauden plazak eta egoitzen kopurua eta ezaugarriak. 3. Eskaera/erantzunei buruzko ebaluazio-txostenak.

3. ARDATZA. BALIABIDE ETA ZERBITZU BEREZITUAK

23. JARDUN ILDOA. GIZARTE BAZTERKETA PAIRATZEN DUTEN FAMILIEI ETA GUTXIENGO ETNIKOEK BEREZIKI ZUZENDUTAKO ESKU HARTZE GIZARTE ETA HEZKUNTZA ETA PSIKOSOSIAL ALORREKO ZERBITZUAK MANTENTZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Muturreko gizarte-bazterketa pairatzen duten pertsonen zuzendutako baliabideak abian jartzeaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardura da, baita ere, gizarte-bazterketa jasaten duten familiei arreta emateko tresnak abiaraztea. ■ Esan dezakegu azken urteotan aurrerakada nabarmena egin dela Gipuzkoan programa mota horiek diseinatzeko eta ezartzeko orduan, eta gaur egun dagoen zerbitzu-eskaintza estalita dagoela. ■ Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da hainbat hobekuntza egitea ekintzak udalekin koordinatzeko orduan, eta alerta azkarreko sistemak ezartzea, kasu edo problematika berriak hauteman ahal izateko; era horretan, sarea premia berri horietara egokitu ahal izango da, ikuspegi kuantitatibo nahiz kualitatibotik. 	<p>a) Familia horiek erroldatuta dauden udalerrietako udalekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko formulak erabaki eta/edo adostea, eta prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek esku hartzeko irizpide partekatuak zehaztu eta ezarriko dituztela bermatzea.</p> <p>b) Kasu berriak eta/edo behar bezala estalita ez dauden beharrak hautemateko alerta azkarreko sistemak ezartzea.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Familian bereziki esku hartzeko programaren erabiltzaile diren familien kopurua. 2. Programan dauden alta eta bajen urteko kopurua. 3. Gizarteratzen laguntzeko sortutako etxebizitzien kopurua. 4. Erabiltzaileen kopurua eta etxebizitzetan dagoen txandakatze-indizea.

3. ARDATZA. BALIABIDE ETA ZERBITZU BEREZITUAK

24. JARDUN ILDOA. GUTXIENGO ETNIKOEKIN ESKU HARTZEKO PROGRAMAK INDARTZEA

JARDUKETAREN ARRAZOITZEA	EDUKIAK	ADIERAZLEAK
<p>■ Gipuzkoako Foru Aldundiak premia-egoeran dauden pertsona guztientzat baliabideak sortzea erabaki du. Talde jakinei zuzendutako ekintzak era negatiboan balioesten ditu, eta ghetto-programak saihesten ahalegintzen da. Talde jakinei berariaz zuzendutako baliabideek ijito biztanleak estigmatizatzeiko arriskua dute berekin. Helburuak erdiesteko bidean aurrera egiteko ezinbestekoa denean bakarrik sortzen ditugu baliabide berezituak eta ijito familiei egokituak, salbuespen gisa.</p> <p>■ Hori horrela izanda ere, eta dauden programei buruz egindako azterketa eta balioespenetan oinarrituta, uste dugu beharrezkoa dela egun dauden zerbitzuak indartzea eta herritar horiei berariaz zuzendutako bi programa berri sortzea: lan-munduan txertatzearen esparruan, alde batetik, eta ingurune irekian esku hartzearen esparruan, bestaldetik.</p>	<p>a) Gizarteratzeko eta lan-munduratzeko berariazko programa bat sortzea, ijitoek lan-merkatu arruntean kalitatezko enplegua lortzea sustatzeko.</p> <p>b) Ingurune irekian esku hartzeko lantegien programa sortzea, ijito komunitateko nerabe, gazte eta emakumeei zuzenduta, helburu hauek lortzearren:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ijitoen denbora librearen egituratzea ● Ijito taldearen parte-hartzea eta sozializatzea sustatzea ● Ijitoen garapen pertsonalaren, gizarte-trebetasunen eta autoestimuaeren garapena sustatzea ● Denbora librearen heziketa-erabilera sustatzea, ijitoen berezitasunetara egokituta ● Puntualtasun- eta jarraitutasun-ohiturak lantzea 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Lan-munduan txertatzeko programa erabiltzen duten pertsonen kopurua. 2. Programa horren barruan egindako urteko kontratazioen kopurua, kontratuen batez besteko iraupena eta egonkortasun-tasa. 3. Ingurune irekian esku hartzeko lantegien programa erabiltzen duten eta jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua.